



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO MAIATZAREN 10EAN  
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Xabier Arregi Iparragirre.

**Zinegotziak:** Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Irene Garcia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

**1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:**

**\*2016/04/26ko ohiko bilkurako akta.**

Batzarkideek, 2016ko apirilaren 26ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**\*2016/04/29ko ezohiko bilkurako akta.**

Batzarkideek, 2016ko apirilaren 29ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- VICTORIO LUZURIAGA USURBIL S.A. ENPRESAK TXIKIERDIKO LANTEGIAN  
EGOKITUTAKO JANGELA ETA SUKALDE INDUSTRIALARI LEHEN ERABILERA  
BAIMENA EMATEA.**

Esp. zenbakia: hz.04/2014-0166

Victorio Luzuriaga Usurbil S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dugu. bertan, lantegian egokitutako jangela eta sukalde industrialaren lehen erabilera baimena eskatzen du.

**AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, besteak beste, VICTORIO LUZURIAGA USURBIL S.A. enpresari Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-77 (TE) ELOR AZPI izeneko eremuan kokaturiko lantegian jangela eta sukalde industrialara egokitzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	71.710,37 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>61.216,57 €</b>



Usurbilgo Udala

Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabeko hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 339,10 €
	Fidantza (%120): 406,92 €.

### LEHEN ERABILERA BAIMENA

2016ko urtarrilaren 16an VICTORIO LUZURIAGA USURBIL S.A. enpresak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, egokitutako jangela eta sukalde industrialaren lehen erabilera baimena eskatu du.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2016ko maiatzaren 3an obra amaierari ALDEKO txostena eman dio.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** VICTORIO LUZURIAGA USURBIL S.A. enpresak Txikierdiko lantegian egokitutako jangela eta sukalde industrialari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Interesatua ondokoaz ohartaraztea: obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta, obra lanen exekuzioaren ondorioz, sor edo sortaraz litezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnitazio gai, egindako obra lanak eraldatzeko betebeharrak jardueraren inguruko neurri zuzentzaileak ezarriko balira.

**HIRUGARRENA:** Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko ezarritako 406,92 €-tako fidantza (IE 2-2015) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari.

**LAUGARRENA:** Eraikuntza, instalazio eta obrei dagokion zergaren egokitzapena egiteko agintzea kontuhartzaitzari.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari emango zaio.

**3.- GRES NEDERLAND COOPERATIEF, U.A. ENPRESARI, URBIL MERKATAL ZENTROKO LAU LOKAL KOMERTZIAL (B26, A9, A10A ETA A10B) BATZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**



Usurbilgo Udala

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2016-0156

GRES NEDERLAND COOPERATIEF, U.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Urbil Merkatal Zentroko lau lokal komertzial (B26, A9, A10a eta A10b) batzeko udal baimena eskatzen du.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	213.560,94 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 28.525 €
	Fidantza (%120): 34.230 €.

### TXOSTEN TEKNIKO

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andereak, 2016ko apirilaren 27an emandako txostenean ondorio hauek bildu ditu:

UA2016\_04\_21

#### **BULEGO TEKNIKO**

**Udal Teknikariak Alkate jaunari**

#### **OBRA HAUNDIAK**

**URBIL MERKATAL ZENTROKO LAU LOKAL KOMERTZIAL (B26, A9, A10a, A10b) BATZEKO OINARRIZKO PROIEKTUARI TXOSTENA**

---

**ESKATZAILEA:** GRES NEDERLAND COOPERATIEF, U.A.

**KOKAPENA:** Urbil Merkatal Zentrua, A- , Usurbil

**ESKAERA DATA:** 2016ko apirilaren 6.

**ESPEDIENTE ZENBAKIA:** HZ.04/2016-0156

**OINARRIZKO PROIEKTUAREN PEM:** 213.560,94EURO.

**HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA:** 28.525,00euro

**FIDANTZA (%120):** 34.230,0EURO.

---

#### **AURREKARIAK**

- 2016ko apirilaren 6an GRES NEDERLAND COOPERATIEF, U.A. enpresaren izenean eskaera egin da Usurbilgo Udalean, Urbil Merkatal Zentroko lau lokal komertzial batzeko (B26,A9, A10a,A10b).

#### **Erlazionatuak:**

- 1999-04-13 Gobernu Batzordeak Urbil Merkatal Zentrua eraikitze baimena.
- 2000-09-26an Gobernu Batzordeak Urbil Merkatal Zentruaren lehen erabilera eta irekiera baimenak.

#### **TXOSTENA**



Usurbilgo Udala

GRES NEDERLAND COOPERATIEF U.A. enpresaren izenean Urbil Merkatal Zentroko lau lokal komertzial (B26, A9, A10a, A10b) batzeko eskaera egin da Usurbilgo Udalean, Oinarrizko Proiektua aurkeztearekin batera. Eskaera orriarekin aurkeztutakoak dira, Oinarrizko Proiektua, Teknikari kolegiatuaren ziurtagiria eta errepresentazio akreditazioa.

Aurkeztu proiektuak barneratzen ditu; memoria, suteen aurkako babeserako justifikazioa, planuak eta aurrekontua.

Indarrean diren Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, Urbil Merkatal Zentrua A-108 ATSOBAKAR eremuan kokatzen da, tertziario merkataritzarako hiri lurzoruan. Dagokion Hirigintza Fitxak eraikuntza baldintzak behin betiko onartutako Plan Partzialera bideratzen ditu.

Aurkeztutako Proiektuaren helburua da: *“Se pretende la agrupación de tres locales comerciales y parte de un cuarto que se segrega para una posterior instalación de actividad comercial en el centro comercial Urbil. Las actividades comerciales existentes que se eliminan son las de venta de ropa en planta baja (B-26 Gables), parque infantil (A 10a-Txikiguai) y bar-restaurante (A10b-Doner) en planta alta. La venta de ropa y artículos deportivos (A9-Forum) reduce la superficie de la actividad al segregar parte de la misma a favor de la agrupación de locales resultantes.”*

*“Para ello habrá que demoler los locales existentes y sus instalaciones, formar dos huecos en forjados para nueva comunicación vertical privativa del local, crear bancadas en cubierta para maquinaria de ventilación y climatización de la futura actividad y adaptar las acometidas existentes a las necesidades del nuevo local.”*

Aurrekarietan azaldu bezala, kokaleku horretan Urbil merkatal zentrua eraikitzeke baimena eta haren lehen erabilera baimena eman zituen Udalak, beraz, orain batu nahi diren lokalak baimendutako eraikinaren barne dira.

Aurkeztu dokumentazioa eta eskaera aztertu ostean, honakoa esan daiteke:

- HIRIGINTZA PARAMETROEN BETETZEA: Aipatu bezala Urbil merkatal Zentrua A-108 ATSOBAKAR eremuan kokatzen da, hiri lurzoruan, erabilera nagusia merkatalgunea izanik. Antolamendu xehakaturik Plan Partzialera bideratzen du eta dokumentu horretan, ez da barne lokalen azalera gehiengorik ezartzen. Orain dauden lokalak, eraikinarekin batean, aurrekarietan azaldu bezala, udalak baimenduak dira. Beraz, hirigintza parametroen aldetik proposamena onargarria da.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANAREN AURREKONTUA ETA FIDANTZA: Oinarrizko proiektuaren gutxieneko edukitzat hartzen ez bada ere, aurrekontuan Hondakinen Kudeaketa partida finkatu da 28.525,0€-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (34.230,0€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- SOINU ARAUDIA BETETZEKO OBRA EGOITZAPENAK: Jarduera dela-eta indarrean dagoen Soinuaren Legea eta gaiaren inguruko aplikaziozko araudia betetzeko beharrezko egokitzapenak egin beharko dira obran, baldin-eta bertan finkatutako soinu dB-ak betetzeko hala beharko balitz (isolamendua, instalakuntzen babes-oinarria,... e.a.).
- JARDUERA SAILKATUAREN BAIMENA EDO AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA: Edonola, indarrean araudiari jarraituz, bertan



Usurbilgo Udala

erabileraren bat martxan jartzeko ezinbestean Jarduera Sailkatuaren baimena edo Aurretiazko Komunikazioa aurkeztu beharko da Udalean, dagozkion ziurtagiri eta dokumentazioarekin batean.

- SUTEEN AURKAKO BABESA: Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Edonola, Jarduera baimen edo aurretiazko komunikazioan bertan finkatuko den erabilera zehatzari dagokion berariazko instalakuntza aztertuko da.
- IRISGARRITASUN ARAUDIA (68/2000 Dekretua), AASSTB, EKT, TENTSIO BAXUKO ELEKTRINDAR INSTALAKUNTZEN ARAUDIA, RITE ETA GAINONTZEKO ARAUDI APLIKAGARRIA: Orohar aplikagarriak direnak bete beharko dira.
- OBRA BAIMENA ETA OBRA BAIMENAREN EPEAK: Edonola, eraikina egokitzeko obrak egiteko dagokion baimena jaso aurretik jarduera baimena eduki beharko da. Horrekin batera, obrak hasteko ezinbestean obra baimena jaso osteko HILABETEKO EPEAN Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da eta Udalaren onespena jaso. Baimenaren epeak izango dira:
  - Obrak hasteko gehiengo epea: 3 hilabete
  - Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 6 hilabete.
  - Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.

#### ONDORIOAK

Ondorioz, aurkeztu den Urbil Merkatal Zentroko lau lokal komertzial (B26, A9, A10a, A10b) batzeko Oinarrizko Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio aipatu baldintzekin.

Ohartarazten da obra honekin batu nahi diren lau lokal horien emaitzakoan jarduera bat ezartzeko, dagokion baimena edo aurretiazko komunikazioa izapidetzearekin batera, aurrez lokal horietan indarrean dauden jarduera baimenen uko egitea aurkeztu beharko dela Udalean. Horrekin batera, ikusirik egun martxan dagoen jarduera batean eragiten duela orain egikaritu nahi diren obrak, FORUM kirol dendan hain zuzen, jarduera haren egokitzapena bideratu beharko da.

Jakinarazten da obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta, obra lanen exekuzioaren ondorioz, sor edo sortaraz litezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnizazio gai, egindako obra lanak eraldatzeko betebeharrak jardueraren inguruko neurri zuzentzaileak ezarriko balira.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2016eko apirilaren 27an.  
HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA/UDAL  
ARKITEKTOA  
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

#### ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** GRES NEDERLAND COOPERATIEF, U.A. enpresari, Urbil Merkatal Zentroko lau lokal komertzial (B26, A9, A10a eta A10b) batzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:



Usurbilgo Udala

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 28.525 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (34.230 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**34.230 €-ko fidantza** Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2016-0156* jarriaz kontzeptuan.

- **Obrak hasi aurretik. HILABETEKO epean:**

- Ezinbestean **Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da eta Udalaren onespena jaso.
- Ohartarazten da obra honekin batu nahi diren lau lokal horien emaitzazkoan jarduera bat ezartzeko, dagokion baimena edo aurretiazko komunikazioa izapidetzearekin batera, aurrez lokal horietan indarrean dauden jarduera baimenen uko egitea aurkeztu beharko dela Udalean. Horrekin batera, ikusirik egun martxan dagoen jarduera batean eragiten duela orain egikaritu nahi diren obrak, FORUM kirol dendan hain zuzen, jarduera haren egokitzapena bideratu beharko da.
- Jakinarazten da obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta, obra lanen exekuzioaren ondorioz, sor edo sortaraz litezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnizazio gai, egindako obra lanak eraldatzeko betebeharrak jardueraren inguruko neurri zuzentzaileak ezarriko balira.
- Borja Vega Diaz del Reiguero arkitektoak 2016ko apirilean idatzitako Oinarrizko Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariek bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Jarduera dela-eta indarrean dagoen Soinuaren Legea eta gaiaren inguruko aplikaziozko araudia betetzeko beharrezko egokitzapenak egin beharko dira obran, baldin-eta bertan finkatutako soinu dB-ak betetzeko hala beharko balitz (isolamendua, instalakuntzen babes-oinarria,... e.a.).



Usurbilgo Udala

- **Jarduera sailkatuaren baimena edo aurretiatzko komunikazioa.** Edonola, indarrean araudiari jarraituz, bertan erabileraren bat martxan jartzeko ezinbestean jarduera sailkatuaren baimena edo aurretiatzko komunikazioa aurkeztu beharko da udalean, dagozkion ziurtagiri eta dokumentazioarekin batean.
- Suteen aurkako babesa. Oro har indarrean den araudia bete beharko da. Edonola, Jarduera baimen edo aurretiatzko komunikazioan bertan finkatuko den erabilera zehatzari dagokion berariazko instalakuntza aztertuko da.
- Irisgarritasun araudia (68/2000 dekretua), AASSTB, EKT, tentsio baxuko elektrindar instalakuntzen araudia, RITE eta gainontzeko araudi aplikagarria: orohar aplikagarriak direnak bete beharko dira.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Obra baimenaren epeak:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obrak amaitzeko gehieneko epea: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
  - a) Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
  - b) Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagozkion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.
  - c) Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da,



Usurbilgo Udala

burututako eraikuntza eta hirigintzazko obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- d) Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
  - e) Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
  - f) Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
    - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
    - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
    - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
    - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

#### **4.- REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLÍFEROS, S.A. ENPRESARI AGINAGAKO GASOLINDEGIA LEGEZTATZEKO ETA BERRITZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0127

REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS, S.A. enpresak, Aginagako gasolindegia (N-634 errepidea, 7,600 k.p.) legeztatzeako eta berritzeako udal baimena eskatu du.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eskaera aztertu ostean, ondoko txostena eman du:

UA2016\_04\_20

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**LEGEZTATZEA ETA BERRITZEA**





Usurbilgo Udala

## **AGINAGAKO GASOLINDEGIA LEGEZTATZEKO PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA**

ESKATZAILEA: Guregas Carburantes SLU / Repsol Comercial  
Productos Petrolíferos, S.A.

KOKAPENA: Aginaga 36, Usurbil

ESKAERA DATA: 2016ko apirilaren 5, 12 eta 22.

### **1. AURREKARIAK**

- 2013-03-12an Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Azpiegituretako Departamenduko jakinerazpena jaso zuen Udalak, "Gasolindegian instalazio lanak" baimentzen zuena (Sarrera zenbakia 915).
- 2013ko martxoaren 13an, 792 irteera zenbakia duen idatziaren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenaz gain, Udalaren baimena eskuratzea ezinbestekoa dela jakinarazi zitzaion interesatuari.
- 2013ko martxoaren 14an, udal baimena eskatu zuen interesdunak.
- 2013ko maiatzaren 8an, 1358 irteera zenbakia duen idatziaren bitartez, Udalak dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu zion Guregas Carburantes, S.L.U. enpresari.
- 2014ko urriaren 23an gasolindegia legeztatzeako proiektua aurkeztu zen dagokion baimena eskatuz.
- 2015eko otsailaren 9an Joxean Erasun udal arkitektoak txostena idatzi zion, baldintzak ezarriz.

### **Erlazionatuak:**

- 1968-09-09ko Udal batzarrak baimena eman zion Don Santiago Otamendi Illaramendiri, 634 EN-ko 7. kilometroan gasolindegia instalatzeko.
- 1972-07-10ko Udal batzarrak baimena eman zion Don Santiago Otamendi Illaramendiri, gasolindegiko instalazioan berrikuntzak egiteko.
- 2005-06-13an Iñigo Oiarzabalek Guregas Carburantes S.L.-ren izenean, Aginagako gasolindegian garbitokia instalatzeko baimena eskatu zuen.
- 2005-06-21an, zinegotzi delegatuak Salome Portu Azpirozek jakinerazpena bidali zuen (irteera zenbakia: 2350), besteak beste honako dokumentazioa aurkeztu behar zela jakinaraziz: "*Arau subsidiarioetako 15. artikuluko 2. atalaren eta 16. artikuluko 6. eta 7. atalen arabera, gal den teknikariak zigitaturiko proiektua aurkeztuko da Igoa espedientea izapídetzeko.*"

### **TXOSTENA**

Antonio Gallardo Álvarez jaunak REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLÍFEROS S.A.-ren izenean Aginagako gasolindegia berritzeko Proiektua aurkeztu du, dagokion obra baimena eskatuz. Aurkeztu den dokumentazioa da: eskaera orria, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Sailaren baimena, Obra Proiektua eta Obra Proiektuari eranskina. Proiektuak eta eranskinak barneratzen dituenak dira: memoria, planuak, aurrekontua, hondakinen kudeaketarako azterlana, baldintza plegua eta Osasun eta Segurtasun azterlana.



Usurbilgo Udala

Proiektuan zehazten denez, proposamenaren helburua da egungo Aginagako gasolindegia berritzea, horretarako honako eskuhartzeak egikaritzuz:

“Se proponen tres medidas para adecuar la ES a normativa y mejorar sus instalaciones:

- **Reforma de los aseos: se procederá a la reforma de los aseos para adecuarlos a la normativa de accesibilidad. (...)**
- **Sustitución de los separadores de hidrocarburos: sustitución de los separadores de hidrocarburos para el tratamiento de las aguas hidrocarbonadas por equipos con la misma capacidad y que realicen la separación mediante placas coalescentes asegurándose un vertido con un contenido inferior a 5 ppm de hidrocarburos libres.**
- **Adecuación del pavimento en los accesos: adecuación del pavimento en los accesos ya que el pavimento existente está en mal estado”.**

Aurkeztu den dokumentazioa eta eskaera aztertu ostean, honakoa esan daiteke:

- **HIRIGINTZA PARAMETROEN BETETZEA:** Obrak egikaritu nahi diren gunea indarrean diren Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, A-3 (A/TA) TXIÑORKA eremuan kokatzen dira, hiri lurzoruan. Bertan, **dagokion hirigintza fitxak ezartzen duenez, Errepideen zerbitzu erabilera ahalbidetzen da, oin bakarreko eraikinean eta 340 m<sup>2</sup>-ko gehieneko azalera eraikiarekin.**
- Aurkeztu den dokumentazioaren arabera egungo Errepide zerbitzu erabilera mantentzen da eta ez da azalera eraikia aldatzen. Erabilera onargarria den arren, azalera eraiari dagokionean honakoa ikusi da:

kokapena	elementua	Azalera eraikia PROIEKTUAN	Azalera eraikia AASTBen HIRIGINTZA FITXAN
Aginagako gasolindegia (ibai aldera)	Eraikin osagarria	57,23 m <sup>2</sup>	
	Estalkia (markesina)	302,6 m <sup>2</sup>	
Aginagako gasolindegia (mendi aldera)	Eraikin osagarria	54,30 m <sup>2</sup>	
	Biltegia	35,00 m <sup>2</sup>	
	Estalkia (markesina)	154,0 m <sup>2</sup>	
<b>GUZTIRA</b>		<b>603,13 m<sup>2</sup></b>	<b>340 m<sup>2</sup> gehienekoa</b>

Beraz, indarrean diren AASS-ek eremurako finkatzen duten azalera eraikia (eraikigarritasuna) gaintzen da eta ondorioz, ez da legeztagarria.

- **LUR KUTSATUAK 1/2005 LEGEA:** Eusko Jaurlearitzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko, ezarritakoa bete beharri dagokionez zera adierazten da;

IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAEko lurzorua polutzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan, REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLÍFEROS S.A.-K Aginagako gasolindegian egin nahi dituen obrak eta egokitu



Usurbilgo Udala

nahi duen jarduera lur kutsatuak izan daitezkeen arriskuarekin inbentariatua dagoen lurzoruan kokatzen dela (planua atxiki da). Hortaz, **egin nahi diren obrak lurzorua kutsa dezakeen jarduera jasan duen lursail batean kokatzen direnez eta lurzoruari eragiten diotenez (ikus aurrekontutik RR0102060, R0102070, R0102430, R0101390, R0508160 eta R0506022, adibidez), ezinbestekoa izango da indarrean den araudiak ezarritako prozedurak betetzea lurraren kalitateari dagokionean. Edonola, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren ebazpena beharko da.**

- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BIDE AZPIEGITURETAKO BAIMENA: Baimena aurkeztu da.
- IRISGARRITASUN BALDINTZEN BETETZEA: Edonola bete beharko lirateke 1997ko Legea eta 68/2000 Dekretua.

#### **ONDORIOA**

Esandakoari jarraiki, **esan liteke Aginagako gasolindegia ez dela gaur egungo egoera legeztagarria indarrean diren AASS-ek finkatzen duten eraikigarritasuna gainditzeagatik. Horrekin batera, orain proposatu diren berritze lanak ere, eraikigarritasun hori mantentzen duten heinean ez dira onargarriak. Azkenik, aipatu eraikina lurzorua kutsa dezakeen jarduera jasan duen lursail batean kokatzen denez, obrak bideragarriak balira ere, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren aurretiazko ebazpena jaso beharko litzateke (eta ez da bideratu).**

Ondorioz, **A-33 TXIÑORKA** eremuan dagoen **Aginagako Gasolindegia** legeztatu eta berritzeko eskaerari **AURKAKO txostena idazten zaio.**

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2016ko apirilaren 26an

UDAL ARKITEKTOA/HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA  
SAILEKO BURUA

Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

#### **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS, S.A. enpresari Aginagako gasolindegia (N-634 errepidea, 7,600 k.p.) legeztatzeko eta berritzeko udal baimena **UKATZEA** udal arkitektoak bere txostenean emandako arrazoiengatik.



Usurbilgo Udala

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS, S.A. enpresari ematea.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**